

«Senarraren pertsuak garbi

Batere uste ez genuela, horra liburu bat: *Bihotz barneko solasak*, izenburu. Bertsoak, Joanes Arrossagarayrenak. Aitzin solasa, bertsolariaren alargun Mayirenak. Eta jo ditugu goiak eta beheak. Hartu dugu autoa, hartu mapa, eta heldu gara Donibane Garazira. Igaro dugu Donazaharre, errepide nagusian mantso, bide seinale guztiei begira. Eta ikusi dugu: Aintzila. Bazter bidean aurrera, 120 arimako herri ttipia. Bentaberri etxea nahi dugu. Karrikan inor ez galde egiteko. Etxeak zerratiak. Noizbait, bizilagun bat. Bentaberri? Ezterenzubi aldera zuzendu gaitu. Bide mehar bihurrian kilometroa egin eta zenbait etxalde mendi magalean. Geratu, berriz galde egin eta heldu gara Mayi Arrossagarayren mundura, XXI. mendeak ukatu nahi digun zokora.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

***Bihotz barneko solasak*. Nola etorri zen liburua-
ren istorioa, Mayi?**

Lehenbizian, Lakak telefonatu zidan, Baigorriko pertsulari horrek, ea nahi nuenez liburua ateratzea. Baietz esan nion. Gero, Emile Larrek ere nahi zuen, eta horrela. Eta Antonio Zavala ere izana duzu hemen Emile Larrerekin hiru aldiz. Hark lagundu nau.

Garai bateko bertsoak, zure senarrarenak, ditugu liburuan...

Senarra bizi zelarik egin nuen nik hori. Hark paper batean izkiritzen zituen pertsuak eta nik kaieran garbiki egiten nituen. Hori egina nuen aspaldi. Liburuaren egiteko, aitzin solasa nahi zuen aita Emile Larrek –aita Antoniok ere nahi zuen–, eta egin dut aise! Gauzak buruan nituen eta segidan izkiriatu nuen. Egun guztiz puxka bat, ez da neke izan, batere! Buru ona dut, gauzak aise atxikitzen ditut buruan. Orduan, anitz gauza banituen buruan eta ezarri ditut aitzin solasean izkiriaturik.

Mundu bat bildu duzu aitzin solasean. Hainbat pertsona. Apez eta serora. Eta pertsulariak. Eta Ameriketara joanak. Familia osoak...

Oroitzen denak! Atxikitzen buruan! Buru ona dut, hara! Emile Larrek erraten dit: “Buru ona duzu, Mayi!”. Liburuko kontu horiek denak buruan nituen. Noiz hilak eta denak. Eskolako zerak eta. Norekin komunitua, norekin konfirmatua... Denak ezarriak ditut. Liburuan dira! Baionako apezpikuaren izena ere ezarria dut: Paul Moullon. Alduden izan diren alkate, erreto-re... Lehen, bikarioa ere bazen Alduden; orain ez da. Urepel ere ezarria dut: hango apez eta, handik atera diren serorak eta. Ezagutu ere egin ditut, eta ezagutzen direnak aiseago sartzen dituzu. Badira anitz hilak, gaixoak!, baina zer nahi duzu!

Nortasun agiria


Mayi Arrossagaray, baina Mari Etcheverry ezkondu aitzineko izenez. Alduden sortua 1951n, 1977an Joanes Arrossagarayrekin Aintzila herrira ezkondua, senarraren etxera, Bentaberri baserrira. Lau seme-alaba ukan zituzten. Senarra 1998an gazterik hila, berrogeita hamar urte ez zituen, haren bertsoak bildu eta argitalpena prestatu du Antonio Zavalak Auspoa bilduman. Urte askoan Mayik senarraren bertsoak garbi izkiritzeko baliatu zuen kaiera hartu eta horra liburua, *Bihotz barneko solasak*, alargunak ondu duen hitzaurre jakingarri batekin: “Joanes Arrossagaray, ene espos lagun zena”. Eta zenbat izen eta zenbat istorio aitzin solasean berean. Eta historia. Garai joan baten lekuko pribilegiatua. Aurpegi bakarreko errealitate ofiziala zulatzen digun arroila.

Harritua naiz: buru ona baino hobe.

Aintzila ere ezarri dut. Herri ttipia da eta hemen gutxixeago da baina ezarri ditut hemengo gauzak ere.

Alduden sortua zara, Urepel ere hainbat maite duzu...

Ama hangoa nuen. Ondoan dira Urepel eta Aldude, hiru kilometro, hurran. Xalbador ongi ezagutu dut, haren familia dena ezagutzen dut. Haren emaztea ere hemen zen, Donibanen [Garazi]. Zahar etxe batean da. Badu hiru urte hor dela. Baditu lauretan hogeita eta ez dakit xuxen zenbat. Makilarekin korritzen da. Maingu da puxka bat. Biziki emazte goxoa elekatzeko! Ezagutzen duzu?



ki ezartzen nituen kaieran»



Mayi
Arrossagaray
• P E R T S O N A I A •

Kanbiatu da

“Bizia kanbiatu da, bai. Jendea ere puxka bat, e! Ez sobera onerako. Batik bat gazteria. Gaztea drogan ere sartu da! Eskola fini eta gazte batzuk hemen berean geratzen dira, baina badira hirirat joaten direnak ere: Baionako edo Miarritzeko. Hemengo lekuak ez dira biziki emendatzen: baserriak, laborari etxeak eta. Ene senarrak badiu pertsuak baserriari emanak: ‘Bas-herriak husten ari’: *Bas-herrietan lenago bazen oraiko jenden doblia...* Eta beste batzuk, ‘Laborarien kezak’: *Gauza on guti ikusten dugu hemendik aitzina...* Segur! Kabalen primak eta, sekulan horiek kentzen badituzte, hemengo nekazariak ez dira aise ariko. Asurantzak eta, goratu dira. Ez dakit Hegoaldean nola duten eginen... Alduden eta Urepelen ere bazen hazkuntza, kabala —ardi, behi, zaldi...—, eta bazen kontrabanda ere. Orain ez dut uste. Paketeak eramaten zituzten bizkarrean eta. Ez dakit zer zen han barnean. Zaldiak ere pasatzen zituzten. Etxe aunitzetan bazen kontrabanda. Maizenik gauzez ibiltzen ziren. Guardiak ere baziren, bai, eta zenbat aldiz harrapatzen zituzten ere!”

Ez, ez... Alduden ginen, eta Alduden Esnazu. Alduden kartier ttipi bat, eliza ttipi batekin, Esnazu. Nire sortetxea han da: Patxikoina du izena, baina ni Baigorriin, etxe batean sortua naiz. Ama neskato han egona zen eta etxeko andereak eramanarazi zuen hara. Han sortua, Patxikoinen hazia.

Bi anaia ttipi hilak dituzu.

Bai, bi anaia, gaixoak! Ez ditut ezagutu. Bat Jean Mixel, sortu eta hamaika egunen buruan. Bestea Edouard, bi urtetan. Etxean ginen aita-amak eta ni, amatxi xahar bat, osaba bat... Haiek ere hilak dira, adinarekin!

Non ikasi zenuen hain molde garbian izkiriatzen?



Nihaurek. Eskolan Esnazu kartierrekoan ibilia naiz, ez Aldudekoan. Aspaldi zerratia da Esnazuko eskola, badu hamasei-hamazazpi urte zerratia dela, ez baitzen gehiago haurrik. Orain haurrak Aldude zolara joaten dira. Eta hamaika-hamabi urtetan, seigarren mailakoak, Baigorriara joaten dira. Ene izkiria nihaurek ikasi nuen. Eskolan ere berdin nintzen, hara! Beti izkiriartzen dut, ahal bezala. Ez dakit zerk egiten duen hori, eskuak edo zerk! Ez dugu denek berdin izkiriatzeko manera! Nik badut seme bat, haren izkiria ez da leitzen ahal. Itsusia! Eskolan ni baino gehiago ibilia baita, hogei urteak artio! Orain gazteak horrela dira! Aldiz, ni, zerbait beti izkiriartzen eta!

Eskolan ere izkiria ederra. Han euskara gabe, frantsesa izanen zen mintzo eta izkiria...

Bai, bai, frantsesa. Etxean atxiki dugu eskuara. Lagunak elkarrekin eskuaraz ari ginen gu ere! Orain ez da gauza bera. Orduan eskuaraz ari ginen gu! Eskolan frantsesa eta gero, gu, guharen artean eskolatik etxerat, bidean, eskuaraz! Eskolan bazen punizioa eskuaraz mintzatzeagatik, baina ez baikinena haien bistan hartzen! Hamalau urte artio arizan nintzen eskolan. Gero, etxean lanean. Seroretan bi urtez, badakizu. Aldude zolan baziren sero-

Aldude-Elizondo

"Aldudetik, ene auzotik joaten nintzen Elizondora. Bi oren behar duzu Esnazutik harat joateko, eta beste bi jiteko. Goizetik joaten ginen eta han bazkalitzen genuen. Ez zen bestaren estakurua ere. Konparazione, arropak merkeago baitziren, han erosten genituen. Zapatak eta! Aldudetik anitz joaten zen gauzen erosterat! Mendiz ibiltzen ginen, ez baitzen oraingo autorik. Orain bai, Alduden autoan ibiltzen dira Erratzun gaindi. Orduan auto guti zen, baina orain etxe guzietan badira autoak han ere!"

rak, elizatik berehala. Orain ez da gehiago serorarik.

Aitzin solasean hainbat izen dituzu ezarriak, Aldude eta Urepelen sortuak. Anitz dira apez, serora eta elizako jendakiak...

Bai. Lehenago bazen serora eta apez gehiago. Orain ez da gauza bera. Anitz apez eta serora eman du Aldudek.

Beste anitz, Ameriketara joanak dira...

Badira orain ere, ene senarraren kusiak, bost Ameriketara. Kalifornian dira, Chino herrian. Eta ene senar zenak bederatzi urte zituelarik, aita Ameriketara joan zitzaion, diru puxka bat egitera. Bi urte egon zen artzain han, etxean utzirik emaztea, haurra eta bere aita xaharra. Ameriketara zelarik hil zitzaion aita, gaixoa! Gero handik jin zen Joanesen aita. Baina bazituen hiru arreba eta anaia eta haiei behar zuen sosa eman: "Etxe partea". Eta eman zuen. Hori puxka bat gogor zen. Ez zen aise, handik jin eta denei sosa eman behar!

Orain ez da horrelakorik: joaten dena joaten da, ez du sosik banatzen.

Orain ez baita nehor Ameriketarat joaten, segurik! Badira zenbaitzuk, joaten dira itzulia-

ren egitera, norbaiten ikustera. Baina hama-bost egunen buruan, edo hilabetearen buruan heldu dira. Orduan besterik zen: sosa egin behar zuten! Urepel, Aldude, Banka, Baigorri horietarik, baduzu anitz Ameriketara.

Beste batzuk itzuli ziren, Mixel Xalbador eta... Bost urte egin zituen artzain Xalbadorreko Mixelek. Gero, jin zen, ez zen biziki laketzen nik uste. Hemen ere ontsa da. Haurrak handi-
tiak ditu. Hiru alaba. Hiruak kantariak.

Nola ezagutu zenuen zure senar Joanes?

Bankako bestetan. Hilabete honen [ekaina] hondarrean izanen dira. Joan ginen lagunak hara eta hura ere etorri zen. Bazuten kanta-tzea, Alkatek eta biek, eta han ezagutu genuen. Ez zuen lehenbiziko kantatzea, baina Bankan aski lehenbizikoa. Kantatzen zuen beste herrietan, orduko. Hasia zen gazte, hemezortzi urtetako; gaztetan. Izkiriatzen, hamasei urtetako. Hogeita zazpi urte zituen ezagutu nuenean... Banuen Joanesen aditza, baina ez nuen ezagutzen, hemen baino gehiago kanta-tzen baitzuen Lapurdin eta kostaldean.

Aintzilara ezkondu zineten, senarraren etxe Bentaberrira...

Mila bederatziehun hiruretan eta hogeita hama-zazpian heldu nintzen hona. Baditut hogeita hamar urte etxe honetan naizela. Hona heldu naizelarik, ez dut batere diferentziarik harrapa-tu. Eskual Herria dena! Aintzila Aldude baino apalago, baina hemen ere ona da. Hemen ere bazen eliza. Eskola ez: zerratia zen ni honat eto-
rri gabe, hiruretan eta hogeita hamazazpia baino lehenago. Baina ene gizona Aintzilan ibi-lia zen eskolan, eta katiximan ere bai.

Lanean, aldiz, etxeko lanean eta hemendik landa ere bai, Suitzan, Bordele partean... Bre-tainian, Meaux herrian, "betarraba sasoinan". Arbia bezala duzu betarraba. Azukrea egiten da harekin. Parisetik urrunago zen Meaux herri hori. Sasoinetan joaten zen hara. Egiten zuen

Apezik ez

"Donibanen da merkatua. Eskolan, katiximan, komuniatu, konfirmatu... Haur denek Donazaharren egiten dituzte. Ez baitute Aintzilan apezik. Eta Donazaharren ere ez!, Donibanekoak jiten dira. Hegoaldean nola da, apez guti? Apez denak xahar dira hemen. Emile Larrek adina badu, oraino badabil baina. Meza ere ez dugu beti herrian. Ahal bezala. Hilabetean behin dugu orain meza herrian, eta hura larunbat arratsarekin! Urepelen, ene haur denboran baziren erretorea eta bikarioa, biak ere! Orain erretore batek egiten ditu Aldude eta Urepel. Apez batek! Ez baita apezik! Kanbiatu da hori".

buruila, urria, azaroa eta abendua... Hiru-lau hilabete hor. Zazpi edo zortzi sasoin hartzen zuten. Ezkondu aitzin izaten zen betarraba sasoinan. Ezkondu ondotik behin izan da.

Zu bakarrik utzirik Aintzilako Bentaberrin...

Ez nintzen bakarrik, banituen xaharrak hemen, senarraren aita-amak.

Bankako bestetan ezagutu senarra. Alkatekin zen orduan kantatzen.

Bai. Anitz kantatzen zuen Alkatekin, Mendi-bururekin. Ezponda, Xanpun, Mixel Xal-bador... Laka eta Mihurarekin ere kantatu izan du, eta lehenbiziko urteetan Mattin eta Xal-badorrekin. Xalbador, aspaldi hila baita, gaixoa!

Ernest Alkat, Joanesen lehenengo bertso laguna.

Bai, Alkat. Bi horiek gazterik hasi ziren... Alkat ez dugu ikusten gehiago. Ez du kantatzen. Kan-bon zen, eri, baina ez dakit orain nola den. Men-diburu ere ez duzuia ikusten? Hura, etxean.

Maite duzu pertsua?

Bai, eta Joanes ezagutu aitzinetik ere! Ni hau-rra eta jiten baitziren Uztapide eta horiek kan-tatzera Alduderat. Lazkao Txiki eta. Bankako Zubikoa eta... Bankako Iriarte ere ezagutu dut. Onak ziren horiek.

Zertan da pertsulari bat on, ala txar?

Hitz ederrak eta aho garbia baldin badu, hura pertsulari ederra duzu. Xalbador maite nuen, Uztapide ere bai... Enetako, Mattin eta denak onak ziren, pertsulari ederrak. Zubikoak ere bazituen ateraldi politak, irri eginarazteko. Lazkao Txiki ere!

"Hitz ederrak, aho garbia". Nolakoa zen Joanes pertsularia?

Botz ona zuen. Elizan eta, aise kantatzen zuen. Orduan pertsu saioak anitz herritan egi-ten ziren hemen, arratsarekin. Plazan, trinke-tan... Elizan ere bai. Behin, Aintzilan egin zuten sabai batean!

gure!
arteak
euskaraz



Bai, liburuan ezarria duzu: "Behin batez izan zen pertsu saio bat Aintzilen, Idiarteko sabaian. Hor arizan ziren Joanes zena, Ezponda, Alkat, Mendiburu eta Laka hemendik; Hegoaldetik ziren Jon Enbeita eta Amuriza. Hori zen 1981eko maiatzaren 24an. Egun hartan zituen ene senar zenak hogeita hamabi urte betetzen, eta gure haur gehienak, Bernadettek, hamar egun zuen sorturik".

Aspaldi du. Jendea omen zen ontsa han bildua. Orduan ez baitziren belarrak eginak oraino, ez baitzen ontsa betea sabaia, hara! Besta ederra eta jendea bildu. Mixel Xalbador eta Xanpun ez ziren etorriak.

Badira bertso batzuk Joanesenak: "Pertsularitza, norat zoaz?". Galduko ote zen kezka eta arrangura bazuen: *Lehen bertsulariak ainitz gehiago / jenden artean zauden estimatuago...*

Tenore bat izan zen, gazterik ez pertsutan, pixka bat apaldua hemen, Iparraldean. Han ez, Hegoaldean, han beti azkar duzue pertsua. Orain puxka bat iduri du hemen ere. Baina tenore batez ez zen pertsua batere kontu. Gazteak denak frantsesez mintzo, eskuararik ez egiten... Hegoaldean ere berdin? Hala ere han eskuara gehiago baduzu, naski. Pertsularia ere gehiago baduzu. Han beti pertsulari gehiago izan da hemen baino. Xalbador eta Mattinen denboran ere hemen ez zen pertsulari anitz. Han biziki gehiago.

Zure solasa leitu eta irudi luke hemen ere izan direla, baina ez ditugula ezagutzen. Mañex Etxamendi, adibidez.

Hor, omenaldi bat egin zioten Eihalarreko Larramendi pertsulariari 1982an, eta ezarri zituen zenbait pertsu. Eta pertsu horietan ezarria da behar zela hurren urtean ohoratu Mañex Etxamendi hori, Ezterenzubikoa. Oraino segurik

AZKEN HITZA Liburua

- Ezagutzen duzu Mattinen alargunaren liburua?
- Ez dut ezagutzen.
- Egingo zenuke beste liburu bat?
- Ez, ez. Aitzin solasa badut aski.
- Gauza handia izkiriatu diguzu.
- Uste duzu? Hori ez dut nik erran behar!
- Preziagarria da zuk izkiriatura: hor da Joanes, zure espos zena, eta haren pertsuak; hor zira zu, haren emaztea; hor Aldude, Urepel eta Aintzila. Hor, sasoi bateko pertsulariak. Behar dizugu eskertu.
- Bo!, hartuko duzuia kafe txorta bat? Ez? Har-tazula! Emanen dizut gogotik!

nehork ohoratu gabea da. Biziki pertsulari pollita omen zen, baina izkiriatur. Ez zuen nahi publikoan arizan, omen. Botz ttipia zuela eta ez da plazetan behin ere arizan. Hura ere zaharturik hila da. Nik ez dut ezagutu, ene senarrak ezagutu du.

"Euskal Herriaren agonia" ere kantatu zuen Joanesek. Horrela ikusten zuen gure herria, hiltzera zihola?

Ez batere! Horrela emanak dira pertsu horiek, zerbait eman behar eta! Sujeta hartzen dituzte pertsulariek. Joanesek erraten zuen sujeta-rekin aiseago ari zirela. Eta egiazkoa balin bazen sujeta, aiseago. Enetako ere, zerbait baldin

bada gertatua, hura ederrago da. Ene ustez.

Aitzin solasean kexa zara bestak eskas izanak direla Aintzilan.

Ni heldu naizelarik hemen bazen besta. Gero, bederatzi urtez egon da bestarik gabe. Eta, orain, joan den urtean hasiak gara egiten. Botzetan samurtu baitziren, puxka bat. Ezarri dut liburuan hori! Iduri du orain arranjatu direla. Ez dakit... Besta pollitak egiten ziren. Jendea ere biltzen zen auzo herrietarik! Beharrik, orain berriz hasi dira.

Diote ez dela aise bertsolariaren emazte izatea, neke dela.

Enetako batere ez!

Zuk Joanes senarraren bertsoak izkiriitzen zenuen kaieran.

Hark bazekien maite nuela izkiriitzea, eta maite nuela pertsua. Hark izkiriitzen ez zuen halako gustua, eta ni hartzen nintzen gogotik. Hark marratu egiten baitzituen pertsuak, nik orduan garbiki egiten nituen paper batean, kaieran ezarri. ■

